

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Kar-car-kar herri txikietan bizi diren pertsonen eguneroko mugikortasun arazoei erantzuteko sortutako aplikazioa da. Garraio publikoaren maiztasun eta estaldura eskasaren aurrean, herritarren arteko elkarlanean oinarritutako konponbidea eskaintzen du, kotxeak partekatuz. Autoa dutenek bidaiak eskaini ditzakete, eta kotxerik ez dutenek haiekin mugitzeko aukera izan, ordutegi zurrunik gabe eta eguneroko beharretara egokituta.

Enpresaren helburua ez da etekin ekonomikoa, baizik eta komunitatearen ongizatea eta ingurumenaren zaintza. Kar-car-kar-ek emisioak murrizten laguntzen du, auto gutxiago erabiltzea sustatuz, eta aldi berean herritarren arteko konfiantza eta elkartasuna indartzen ditu. Gainera, aplikazioa euskaraz erabiltzeko aukera eskaintzen du, tokiko identitatea balioetsiz eta hizkuntzaren erabilera eguneroko bizitzan bultzatuz. Kar-car-kar ez da soilik garraio-tresna bat: herrietan oinarritutako komunitate-proiektu sozial eta jasangarria da.